

Heineken Jazzaldia lau kontzertu eskainiko ditu San Telmon, Musikenerekin lankidetzan

SGAE Fundazioak babesten du zikloa

53. Heineken Jazzaldia azken urteotan Musikenerekin (Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegia) eta San Telmo Museoarekin mantendu duen lankidetzara arrakastatsuekin jarraituko du, zeinak kontzertu bikainak utzi baititu tokiko musikariak protagonista direla, zenbait kasutan, Europa eta Ameriketako musikari gailenekin partekatu badituzte ere beren proiektuak.

Lankidetzara honetan partaide izango da, aurreko urteetan bezala, Espainiako Egile eta Editoreen Elkarte Nagusiaren SGAE Fundazioa, berak babesten baitu ziklo hau.

Heineken Jazzaldia ikastegiko irakasleek ondutako proiektuak programatzeko aukera ematen dio Musikeneri eta elkarrekin adosten dute programa. Horrela izan da oraingoan ere: maila ikaragarriko lau proiektu hautatu dira, hala interpretatzaileen kalitateagatik nola proposamenaren beraren interes objektiboagatik.

Gainera, Musikeneren irakaslea den Patri Goialdek hitzaldi bana emango du kontzertu bakoitzaren aurretik, jazzeko izen historiko handi bat hizpide hartuta. Iaz ere oso harrera ona izan zuen ekimen honek. Aurtengo hitzaldiak –gaztelaniaz emango dira– Duke Ellington, Billie Holiday, Charlie Parker eta Charles Mingus-i buruzkoak izango dira.

Aretoan 200 pertsona sartzen dira. Ateak 11:20ean irekiko dira eta, hitzaldira doazenean –11:30ean hasiko dira hitzaldiak– kontzertua entzuten geratzeko aukera izango dute, zeina 12:20 inguruan hasiko baita.

Hona hemen San Telmo Museoan, SGAE Fundazioaren Gunean eskainiko den programa:

HEINEKEN JAZZALDIA

Erregina Erregeordea, 8 - 20003 Donostia / San Sebastián
T. (0034) 943 481 900 E. jazzaldia@donostia.eus
www.heinekenjazzaldia.eus



Uztailak 25

San Telmo Museoa – SGAE Fundazioaren Gunea. 11:30. Sarrera doan.

Patri Goialderen hitzaldia Duke Ellington-i buruz

Conrad Herwig-Carlos Martín Quintet

Conrad Herwig-Carlos Martín Quintet

Conrad Herwig (tronboia), **Carlos Martín** (tronboia), **Roger Más** (pianoa),
Gonzalo Tejada (kontrabaxua), **Guillermo McGill** (bateria)

Bi tronboiko boskote hau jazzaren historiako zenbait tronboi-jotzaile handik beren garaian osatutako boskoteei egindako omenaldi bat da, hala nola, J.J. Johnson eta Kai Winding-ena edota Carl Fontanak eta Frank Rosolinok eratu zutena. Conrad Herwig jazzeko tronboi-jotzaile onena hautatu izan du *DownBeat* aldizkariak hainbat urtez. Bere elkarlanen artean aipatzekoak dira, besteak beste, Joe Henderson, Frank Sinatra, Clark Terry, Tom Harrell, Mingus Big Band, Joe Lovano, Red Garland, Dave Liebman eta Max Roach-ekin egindakoak. Carlos Martín nazioartean proiektio handienetakoa duen artista da, Espainiako jazzeko tronboi-jotzaileen artean. Izar askorekin egin ditu elkarlanak eta/edo grabazioak: Mingus Big Band, Carla Bley, Bebo Valdés, Bruce Barth, Alicia Keys, Alejandro Sanz... Carlos Martín Musikene prestigiotsuko irakaslea da eta taldeko gainerako kideak ere Musikenen irakasletzan jarduten duten musikari handiak dira.

Uztailak 26

San Telmo Museoa – SGAE Fundazioaren Gunea. 11:30. Sarrera doan.

Patri Goialderen hitzaldia Billie Holiday-ri buruz

Skytrain

53 Heineken® JAZZALDIA

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
UZTAILA / JULIO / JULY
25-29 2018

Skytrain

Joaquín Chacón (gitarra), **Mariano Díaz** (pianoa, teklatuak), **Víctor Merlo** (baxua), **Daniel García** (bateria)

Skytrain proiektua 2011n sortu zen gitarra elektrikoaren tinbrea eta piano akustikoarena konbinatzen dituzten formazioetan inspiratuta, jazz garaikideko hainbat taldek baitute ezaugarri hori. Beren konposizioak jotzen dituzte eta indar handiko zuzenekoak dute, ikus-entzuleen inplikazio handia lortzen dutelarik. 2015ean, "Artistas en ruta jazz" proiektuan parte hartzeko hautatu zituzten eta 2016an, berriz, "Jazzeñe" erakustaldirako; hori dela eta, Espainiako areto askotan eman dituzte kontzertuak.

Uztailak 27

San Telmo Museoa – SGAE Fundazioaren Gunea. 11:30. Sarrera doan.

Patri Goialderen hitzaldia Charlie Parker-i buruz

Chris Kase Quartet

Chris Kase Quartet

Chris Kase (tronpeta, fiskornoa), **Marcos Collado** (gitarra), **Ander García** (kontrabaxua), **Miguel Benito** (bateria)

Prestigio handiko tronpetaria da Chris Kase. Mingus Big Band, Kenny Wheeler, Steve Coleman, Chick Corea, Al Foster, Bruce Barth, Conrad Herwig, Iñaki Salvador, Mikel Andueza, Bob Sands edota Jorge Pardorekin jo izan du eta/edo egin ditu grabazioak. Washingtonen 1997an ospatutako Jazzeko Tronpetako Thelonious Monk Nazioarteko Lehiaketan parte hartu zuten hamabost tronpetarietako bat izan zen. Jazzeko tronpetako irakaslea da Musikenen 2003tik hona. Laukotea osatzeko *-Let Go* diskoan entzun daiteke berorien musika-erperientzia luzeko hiru musikari bildu ditu taldera.

HEINEKEN JAZZALDIA

Erregina Erregeordea, 8 - 20003 Donostia / San Sebastián
T. (0034) 943 481 900 E. jazzaldia@donostia.eus
www.heinekenjazzaldia.eus



53 Heineken® JAZZALDIA

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
UZTAILA / JULIO / JULY
25-29 2018

Uztailak 28

San Telmo Museoa – SGAE Fundazioaren Gunea. 11:30. Sarrera doan.

Patri Goialderen hitzaldia Charles Mingus-i buruz

Andrzej Olejniczak Quartet: *Interpreting Chopin*

Andrzej Olejniczak Quartet: *Interpreting Chopin*

Andrzej Olejniczak (saxoak, klarinete baxua), **Michal Tokaj** (pianoa), **Alan Wykpisz** (kontrabaxua), **Lukasz Zyta** (bateria)

Chopinen obra Poloniaren independentziaren aldeko sinbolo eta ikur izan da betidanik, horregatik, esanahi berezia hartzen du proiektu honek aurten, hain zuzen ere, 2018an betetzen baitira 100 urte Polonia berpiztu zenetik. Chopinen musika, hain garrantzitsua poloniarren ariman eta sentimenduan, oso hurbilekoa gertatzen zaie jazzeko musikariei ere. Laukoteak Chopinen konposizio ezagunenetako batzuk egokitu ditu bere errepertorioarako.

HEINEKEN JAZZALDIA

Erregina Erregeordea, 8 - 20003 Donostia / San Sebastián
T. (0034) 943 481 900 E. jazzaldia@donostia.eus
www.heinekenjazzaldia.eus



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



donostia
kultura